

# Hizkuntza orokorra-xede berezietarako hizkerak

## *Hiztegi Batuaren zeregina*

**Andres Urrutia**  
**Euskaltzainburua**

Artikulu honetan euskaltzainburuak hausnarketa orokor bat egiten du euskararen lexikografiaz, Euskaltzaindiaren egitekoak aztertuz bi alorretan: hizkuntza orokorrari dagokionez eta hizkera berezietuei dagokienez. Bi alorrek maila teorikoan erkatu ondoren, kasu praktiko baten baitan berraztertzen dira: hizkera juridikoaren kasuan. Bukatzeko Euskaltzaindia eta UEU elkarlanera deitzen ditu.

In this paper, the President of the Royal Academy of the Basque Language, offers a reflexion on Basque lexicography, analyzing the work that the Royal Academy has to develop in two major areas: those questions related to the language of daily conversation and the language of more specialized discourses. After comparing both areas from a theoretical point of view, they are reanalyzed from the point of view of a particular example: that of legal discourse. In the end, he calls for collaboration between the Royal Academy and UEU.

## 0. Sarrera<sup>1</sup>

Eguerdion guztioi,

Udako Euskal Unibertsitatearen deia erantzunez eta berari eskerrak emanez, Euskaltzaindiaren ordezkaritza dakart gaur zuengana, udako ikastaroen hasierako ekitaldi honetara. Izan ere, Euskaltzaindiak aspaldiko harremanak ditu UEUekin, eta, zer esanik ez, gogoan izateko modukoa da gure Akademiak UEUren sorreran izan zuen zeregina.

Egun, bistan da, UEUk bere adin-nagusitasun zientifikoa eskuratu du. Hala ere, pauso sendoak eman ditu, eta oraindik ere eman beharko ditu, ziur asko, euskalgintzaren barruan dagokion lekua oso-osorik zertu arte.

Egoki izan daiteke, beraz, eta nire lehen autua horretan jarri dut, behinola UEUko irakasle izan zen honen aldetik, birpasa laburra egitea, bi erakundeok, Euskaltzaindiak eta UEUk, erkidegoan dugun historia horren inguruan. Historia, esan dezadan bidenabar, ez da nahiko eguneroko premiei erantzuna emateko. Historiaren erakusmoldeak, alabaina, sarri askotan izaten zaizkigu baliagarri, iraganaren ikasgai ederrak erdiesteko eta egungo moldeek behar dutena aintzat hartzeko.

Aurrekoak berez duen garrantzia beheratu gabe, bigarren batek ere erakarri nau zuon artera, eta horrexegatik aukeratu dut pil-pilean dagoen gaia, *hizkuntza orokorra-hizkuntza berezituak* edota *xede berezietarako hizkerak* tituluaren barruan jarriko dudana. Horretan, eta batik bat, Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* deiturikoaren inguruan, mamitu nahi dut nire azalpenaren bigarren zatia. Hartara, ardatz nagusi izango ditut lexiko-kontuak, horietan bistara daitekeelako nabariaren esandakoaren adierazpena.

Teoria orokorra, alabaina, motz eta urri gera daiteke, praktikan zer ari den horrekin frogatzen ez bada. Horretan ere jardungo dut, berandu baino lehen, adibidetzat hartuta gogokoen dudana alorra, hau da, zuzenbidearen eta administrazioaren hizkera.

Zernahi gisaz, ez etsi eta ez lotsa, ahaleginak egingo baititut guztiok onik eta bizirik ateratzeko, aspergarri dirudien baina aberasgarri nahi nukeen ataka honetatik.

### 1. Euskaltzaindia eta UEU: hasierako loturak, gaurko harremanak

Euskalgintzaren historian badira euskararen sustatze-ahaleginetan letra larrietan idaztekoak. Besteak beste, gerra osteko aldi ilunean kokatzen direnak, euskarari sekulako hondamenditik ateratzen lagundu ziotenak. Debeku zen orduan nagusi, nonahi eta zernahitarako, euskararen joraketan jardun nahi zuten guztientzat.

---

1. Testu hau Andres Urrutia euskaltzainburuak azaldu zuen Udako Euskal Unibertsitatearen 33. ikastaldiaren sarrera-ekitaldian, 2005. urteko uztailaren 18an, Iruñeko Larraona ikastetxean.

Debeku horren harlauzaren azpian, ertz arrakalduetan, argi izpiak zeuden distiran. Horien artean, zer esanik ez, Euskal Unibertsitatearen nahia eta gogoia. Horretarako bidean ere, Euskaltzaindia bera. Egun Euskaltzaindian diharduten langileetarik hainbat, aparte ez: Ricardo Badiola, Juan Jose Zearreta, José Luis Lizundia. Hari beretik ere, Satrustegi, Villasante... Berebiziko ahalegina egin behar izan zuten horiek guztiek, lehen UEUren ekintzak Iparraldean eta gero Nafarroan kokatu ahal izateko.

Debekuak debeku, harrezkeroko historiak beste puntu batera eraman gaitu, eta aldiotako historia erkide horrek osterantzeko planteamendua behar du. Orduko eraginaren ondorio dira gure artean euskalgintzan diharduten erakunde eta elkarte anitz. Horiek euskara hartzen dute lan-tresna eta zerbitzu-hizkuntza, eta, horretarako, igarri-igarrian, tresna trebatu eta egokitua behar dute.

Hori moldatzea legez dagokio Euskaltzaindiari, eta egin ere, halaxe egiten du, euskararen zer-nolakoak zehaztuz eta arautuz. Ereku askotako zereginak ditu Euskaltzaindiak lan egiteko tenore horretan; batzuk aipatzearen, hona agerikoenak: gramatika, hiztegiak, dialektologia, onomastika, toponimia, literatura eta euskararen egokitasuna. Aurrekoen argitalpenaz ere ardura berezia du akademiak, eta, eguneroko deman, bi atal desberdinetan finkatuak ditu eginkizunak: IKER eta JAGON ataletan, hain zuzen ere. Bi-biotan bada zer joratu eta zer landu, zuetako askok ondotox dakizuenaz.

Nolanahi ere, Euskaltzaindiaren ahaleginak gorabehera, Akademiak euskalgintzan ari diren beste eragile batzuekin harremanak ondu eta egokitu behar ditu. Harreman horiek, emaitza zientifikoak elkarrekin trukatzear at ere, bi norabideko konpromisoa ekarri behar dute, nire ustez: lehena, erakunde eta elkarte bakoitzari dagokiona, Euskaltzaindiaren hizkuntza-estandarizazioa zabaltzekoa eta betetzekoa; eta, bigarrena, Euskaltzaindiari berari dagokiona, erakunde eta elkarte bakoitzaren ekarria aintzat hartzekoa, estandarizazioaren lorratzetan.

Lan ugari eta desberdinak daude egiteko euskalgintzaren alor askotan. Egitekotan, nire ustez, egin behar dira euskarari zor zaion duintasun linguistikoaren bidez, edozein hizkuntzak maila formal eta ikasian dituen eskakizunak behar bezala gordeta.

Argi gera bedi, nire aldetik, hizkuntzaren maila jasoari buruz ari naizela. Inork ez dezala nire berbetan aditu euskarak mintzamolde desberdinetan duen altxor ederraren aurkako iritzia. Bestelakoa da hori, eta, beharbada, beste aukera batean luze hitz egiteko modukoa.

Euskaltzaindiaren zuzendaritza berriak horretan du gogoia, eta horretan arituko da datozen urteetan. Ezinbesteko abiaburu baten pean, hori bai, Euskaltzaindiaren lana, beti egin izan den moduan, aurrerantzean ere edu horretan egingo baita, ideologia eta politika guztietatik kanpo.

Euskaltzaindia erakunde ofiziala da Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Horrek ematen dio egundoko erantzukizuna, bertako agintari eta arduradunekin harreman iraunkorrak izateko. Ofizialtasunak, edozein modutan ere, eite

desberdineko kezkak ekartzen dizkio Euskaltzaindiari, bera baitago egokiera ezin ederragoan, lurralde-geografiaz zein hizkuntza-arduraz, euskalgintzan ari diren erakunde eta elkarteen arteko foro edo biltoki erkide eta esanguratsua izateko.

Hara bertaratu behar dira horien zinak eta minak, betiere, lehen esan bezala, bakoitzaren ideiarri muzin egin gabe, baina jakinik, hori bai, zein den Euskaltzaindiaren egitekoa. Horretan zertu nahi ditugu harremanak euskalgintzako erakunde eta elkarteekin —UEU ere barne—, nork bere eginkizunari helduz, denon artean jakin dezagun euskalgintzaren ehotze-lana asmatzen.

Bazterrean ezin utzizkoa da, UEUri dagokionez, INGUMA datu-base bikainaren inguruan elkarrekin dugun hitzarmena. Ea horrelakoak beste zeregin batzuetara ere hedatzeko gai garen!

Dagoeneko, ziur asko, aspertu zarete erretolika honetaz. Lasai, lehen puntua, dagoeneko, agortua baitut. Goazen, bada, bestelakoetara.

## **2. Euskaltzaindia eta xede berezietarako hizkerak: historia apurra eta egungoaren hariak**

Hogei urte baino gehiago joanak dira, Euskaltzaindiak honako hau aldarrikatu zuenetik:

Hondarribian, 1981.eko Abenduaren 29an bildurik, Euskaltzaindiak honako hau aditzera ematen du: Euskaltzaindiak literatura eta gramatikaz beste alde, hiztegi lana du bere eginkizun nagusienetarikoa...

3. Zuzenean ez da Euskaltzaindiaren lana, beste edozein hizkuntzatan ere ez den bezala, hiztegi espezializatuen sortzea eta banan banako azterketa egitea, hizkuntzari eta euskararen egiturari dagozkion funtsezko puntuak zaintzea izan ezik.

Hizkuntz teknikoetan Euskaltzaindiak pozik ikusten du grafia gai orokorretan erabakiak daudenek harrera ona izan dutela. Erabaki gabe daudenak lehenbaitlehen argitzen ahaleginduko da.

Ezin hobeki deritza Euskaltzaindiak edonork taldeka nahiz bakarka arlo honetan lan egiteari<sup>2</sup>.

Urte batzuk geroago, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak ere mezu berbera luzatu zuen (1993) :

Azkenik Euskaltzaindia delakotz hizkuntzaren zaintzalea, hiztegi espezializatu guziek behar lukete Euskaltzaindiaren oniritzia ukan, batasun bat ukan dezaten denek ortografiaren aldetik edo joskeraren aldetik<sup>3</sup>.

---

2. Euskaltzaindia: «Euskaltzaindiaren adierazpenak hiztegi gintzaz», *Euskera*, 27. liburukia, 1 (1982), Euskaltzaindia, Bilbo, 271. or.

3. Haritschelhar Duhalde, J. G.: «Administrazioaren eginbarra hizkuntz minorizatuen etorkizuneari», in *Erakundeak eta gizartea (hitzaldien zikloa)*. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Gasteiz, 1994.

Hamarkada baten ondoren, honetara zetorren euskaltzainburu baigorriarraren ahotsa, Deustuko Unibertsitatearen *Forum* ekitaldian emandako hitzaldian (2004/10/05):

Hona, beraz, anitz urtetako lana, bigarren itzulia hasia delarik b letran dagoela oraindik Euskaltzaindia. Bainan pentsa dezagun lehen itzulian 23.000 hitz hartu baldin baziren, beste hainbeste edo gehiago izanen direla bigarrenean eta beste itzuli batzu segurki izanen direla. Beste lan bat ere bideratzekotan dago: hiztegi espezializatuak, hala nola zuzenbidekoa, zientzietakoa, erakasle espezializatuekin harremanak ukan-eta, jakinik jakintsuen aholkuak beharrezkoak dituela Euskaltzaindiak. Lan horiekin irakaskuntzak behar dituen hitz berriak euskararen bultzatzeko eskoletan eta unibertsitateetan hain zuzen ere, sartuko dira Hiztegi batuan<sup>4</sup>.

Zer zegoen bien bitartean? Nire ustez, halako konbentzimendu sendoa, *Hiztegi Batua* delakoarentzat Euskaltzaindiak jarri zituen oinarrietan erro eta sustraiak dituen. Gogoratu, bestela, 1991. urtean, Saran aurkeztutako txostenean esaten zena, gerora, *Hiztegi Batua* izango zenaren deskripzio gogotsua:

1. Gogoan izan behar dugun batezbesteko erabiltzaileak bertan aurkitu behar du: irakasmila ertaineko ikasketetan edo eguneroko albisteetan ohizkoak diren hitzak eta esapideak; edo publiko zabalarentzako kultur eta kirol-ekitaldietan, irrati-eta telebista-saioretan, eliz funtzioetan, familiakoen eta adiskideen gutun-trukean, salerosketa eta administrazioarekiko harreman arruntetan, enpresa eta elkarteetako ohareta antzeko mailako idazkietan agertu ohi direnak<sup>5</sup>.

Luzebailuze hitz egin daiteke titulutzat hartu dudan horri buruz. Apartera joan gabe, berrikitan ondu dira Mendebalde Alkartearen urteroko jardunaldiak, gai honek eztabaida nagusia sortu duela. Aurki, itxura denez, ildo bereko beste foroak irekiko dira. Horren harira, badira hor puntu batzuk azpimarratzekoak direnak. Nire irudiz, hauetara bihur daitezke:

1. Agerikoa da euskarak erabilera zabala duela egun unibertsitate- eta lanbide-gaietan, hots, komunikazio espezializatua behar duten eremuetan.
2. Euskararen irautea, neurri handi batean bederen, esparru horietan nor izatetik dator, hau da, halako zereginetan maiztasun duin batez erabiltzeak bermatzen du haren izatea.
3. Ereku horiek behar dute hizkuntza espezializatuen inguruko hausnarketa, batez ere, hausnarketa hori egin behar bada ereku urriko hizkuntza baten alorrean; euskararen kasuan, hizkuntza orokorra maila jasoan moldatzen ari den aldi eta une berean.
4. Bada azken urteetan hizkuntza orokorraren aldetik osterantzeko tresna, Euskaltzaindiak onetsia, euskararen hizkuntza orokorraren hiztegia, *Hiztegi Batua*, morfologiaren ikuspegitik behinik behin, finkatze-lana ekarri duena.

---

4. Argitaragabea. Deustuko Unibertsitatea, Deustu Forum-2004/10/05, 7. or.

5. Euskaltzaindia: «*Hiztegi Batua*: lanketa- eta onspen-prozedurak», *Euskerak*, 36. liburukia, 1991-3, Bilbo, 1.137. or.

5. Finkatze-lan horrek ondorio bikoitza izan duela ezin uka. Hasteko, euskalkien arteko grafiak eta abarrekoak batu ditu, hitz asko euskalkietatik hartuz eta orokortuz; bestela ere, hizkuntza orokorretik harago joan da erabilgarritasunaren izenean, eta, gaur terminologia eta lexikologiaren artean dagoen gunere horretan ere, xume-xume, bere burua agertu du, non zer zehaztu nahian.
6. Seigarrenik ere bada, artean sortu direlako enpresa eta elkarteak, lanbidez hartu dutenak lan horiek egitea. Horien emaitzak merkaturatu ahala, gero eta bistarago dago bi ardatz horien artekotasuna, hau da, hiztegi orokorraren eta hiztegi espezializatuen artekoa.

Aspalditik esan nuenari oratuko diot berriz ere:

Horren bitartez, ezari-ezarian hasi dira eztabaidatzen eta zabaltzen hizkuntzaren inguruko bestelako dinamikak. Dinamika horiek eraman gaituzte, besteak beste, euskara batua-euskalkiak bikote horren aldamenean, bestelako tirabirak ere plazaratzera, alegia, hizkera arrunta-hizkera berezituak gogorarazten dizkiguten dema bizi horietara<sup>6</sup>.

Kinka bera izan zuen Euskaltzaindiak bere *Hiztegi Batua* izenekoaren lehen itzulia bukatu (2000-03-31) eta bigarren itzuliari hasiera eman zionean. *Euskera* aldizkarian irakurketa arina eginez gero, berehala antzematen dira euskaltzainen arteko eztabaidak, bigarren itzuliaren luze-zabalak zehaztu nahian.

Iturenen 2000. urteko maiatzaren 26an sutsu eztabaidatu zen arazo horren gainean. Jokoan zen zeri heldu bigarren itzulian *Hiztegi Batua* deiturikoaren edukian, egun edozein erabiltzailek behar dituen kontzeptu espezializatu batzuk bertaratzeko.

Horren esperantzan, Bilbon egin zuen Euskaltzaindiak, 2000. urteko ekainaren 22an, halako hiztegi gintza-jardunaldia. Bertan entzun nahi zituen Akademiak euskalgintzaren esparruan eragile eta egile zirenen ahots eta iritziak, *Hiztegi Batua* ren bigarren itzulia hasi aurretik. Luze joango litzaidake hemen azaltzea orduko partaideen zerrenda. Esan dezadan, iragaitzaz bada ere, hiztegi gintzan, terminologian, komunikabideetan, enpresetan, administrazioan eta tankera horretako arloetan dabilen jendea hurreratu zela orduan Euskaltzaindiaren egoitzara, gure Akademiari, lehen esan bezala, ekarpenak egitera.

Luzeago etorriko litzaidake, zalantzarik gabe, haiek ekarritako txostenen hezur-mamia laburbiltzea. Horrexegatik hobetsiko dut bestela esatea, garai hartan gure lker Sailburu zen Azkarate andrearen hitzekin:

Uste dut hortik egin beharko dugula gogoeta eta beharbada pentsatu Hiztegi Batuan orain arteko lan moldea edo antzerakoa edo, behar bada, horrekin aurrera egin bai, baina horren ondoan, beste zer lan moldu urratu behar dugun edo zeri ekin behar diogun, ahalmenik dugun horretarako, denboraz nola gabiltzan, horretarako arduratzeko gai sentitzen garen edo ez garen<sup>7</sup>.

---

6. Urrutia Badiola, A.: «Legearen zirrikietatik barrena: ahozkotik idatzizkora», *Euskera*, 43. liburukia (2. aldia), 1998-1, 37-38. or.

7. Hiztegi gintza Jardunaldia, Egoitza, 2000-6-22, 16:00 – 19:30 bitartean izandako azalpenen eta eztabaiden transkripzioa (argitaragabea).

Orain arte azaldutakoak berehala ekarri zuen ondorioa, urte bereko irailaren 29an Zizur Txikian, hain justu ere, onetsi baitzuen Euskaltzaindiak horrelakoetan aurreratzea.

Lehen arazoa iturrietatik zetorren. Egin-eginean ere, ordu arteko iturburuak ez ziren, askoren iritziz, nahiko zabalak puntu honi heltzeko. Bide hori sakondu eta erabakia bestetik etorri zen, hau da, aurreko iturriak osatzearen alde; horretarako beharrezkoa zen aurrekari-multzo egokia.

Hitzez hitz esanda, hauxe zen testuaren lerrokada, *Hiztegi Batua* bigarren itzulian iturriak zehazteko tenorean:

Bestalde, aurreko iturrietatik lortutako zerrendak osatu egingo dira: batetik, ahozko tradizioetik hartutako hitzekin (ondorengo puntuak adierazten diren irizpideen arabera), eta arloz arlo oinarrizko ikusten diren termino edo hitz berezituak zerrendekin<sup>8</sup>.

Oin-oharretan ere, areago zehazten ziren horren sustraiak:

Dena den, hurrengo pasaldirako iturriak behar bezala osatuak egon daitezten, beharrezko ikusten da Ahozko Tradizioa bilduko duen corpusa eta alorrez alorreko Testu Bereziuetako corpusa osatzeko urratsak egiten hastea<sup>9</sup>.

Harago joatea erabaki zen, eta hori lantzeko lantaldeak eratzea ere onetsi zen ekitaldi berean. Hurrean ere, lau lantalde osatzeko txostenak irakurri ziren hurrengo osoko bilkuretan, hitz berezituak *Hiztegi Batua*ren bigarren itzulian baneratu nahian. Urte bereko urriaren 27an irakurri ziren, hurrenez hurren, bi txosten hauek:

Miren Azkarate euskaltzainak “Komunikabideen lantaldea: proposamena”<sup>10</sup>.

Andres Urrutia euskaltzainak “Administrazio-zuzenbidea hiztegirako lantaldea: proposamena”<sup>11</sup>.

Xabier Kintana euskaltzainak, berriz, 2000. urteko abenduaren 22an irakurri zuen “Unibertsitateko jakintza arlo nagusietako terminologia biltzeko lan-proposamena” txostena<sup>12</sup>.

Azkenez ere, Miren Azkarate euskaltzainak laugarren txostena irakurri zuen, 2001. urteko urtarrilaren 26an: “Eguneroko hitzen lantaldea: proposamena”<sup>13</sup>.

Lau proposamenek helburu berbera zuten, alegia, bigarren itzuli horretan sistematizazio egoki baten bidez egungo bizimoduak behar dituen arloetako hitzak zedarriztatzea eta *Hiztegi Batua* deiturikoan barruratzea, aldi berean, irizpide

---

8. In *Hiztegi Batuko irizpideak: 2. itzulia*, Euskaltzaindia, Bilbo.

9. In *Hiztegi Batuko irizpideak: 2. itzulia*, Euskaltzaindia, Bilbo.

10. In Urrutia Badiola, A., Azkarate, M. eta Kintana Urriaga, X.: «Hiztegi gintzaz» (separata), *Euskera*, 46. liburukia (2. aldia), 2001-1, 313. orrialdetik 315.erakoak.

11. In Urrutia Badiola, A., Azkarate, M. eta Kintana Urriaga, X.: «Hiztegi gintzaz» (separata), *Euskera*, 46. liburukia (2. aldia), 2001-1, 307. orrialdetik 312.erakoak.

12. In Urrutia Badiola, A., Azkarate, M. eta Kintana Urriaga, X.: «Hiztegi gintzaz» (separata), *Euskera*, 46. liburukia (2. aldia), 2001-1, 317. orrialdetik 324.erakoak.

13. In Urrutia Badiola, A., AZKARATE, M. eta Kintana Urriaga, X.: «Hiztegi gintzaz» (separata), *Euskera*, 46. liburukia (2. aldia), 2001-1, 325. orrialdetik 327.erakoak.

batzuk ematen zirela barruratze horren inguruan. Hala egitea, bestalde, oreka baten atzetik zetorren, hizkuntza orokorrak eta xede berezietarako hizkerak uztartzeko asmotan.

Horren aldera, zuen aurrean berretsi nahi nuke orduan idatzi nuena:

Helburua ez da «administrazio-zuzenbidea» hiztegi berezi osoa egitea, baizik eta hiztegi berezi horretatik hiztegi batu eta orokorrera zer ekarri zehaztea, neurri batean behintzat, eta hori modu egituratu eta sistematikoan lantzea<sup>14</sup>.

Ildo beretik etorri zen, geroenean, Laudion, 2002ko abenduaren 20an, Andres Urrutia, Patxi Zabaleta eta Jose Luis Lizundia euskaltzainok aurkeztu zuten lehen zerrenda, administrazio-zuzenbide lexikoari dagokiona.

### **3. Xede berezietarako hizkerak: hizkera juridikoaren esparrua**

Esandakoaren arabera, adibide egokia izan daiteke, *Hiztegi Batua* (1. itzulia) delakoaren aldetik, horren ezarpen praktikoa egitea. Horretarako aukeratu dut aspalditik Deustuko Unibertsitatean egin genuen neurketa eta konparazioa<sup>15</sup>, orain-txe bertan, beste behin ere, eztabaidagai izan daitekeena. Hizkera juridikoari buruz mintzatuko naiz, eta, horretan, lehen galdera, ziurrenik, zenbatekoa izango da.

Hizkera juridikoaren baitan, guretzat hitz juridikoa zer den honetara eman dugu: hitz jakin bat termino juridikoa izango da, baldin eta antolamendu juridikoak esanguraren bat ematen badio. Hortaz, hitz juridikoak esanahi edo karga juridikoa behar du izan, eta zuzenbideko hiztegiaren barruan sartu behar da, eragile juridikoek hala erabiltzen dutelako. Edozein egitate, ekintza edo gertaera juridikotzat har daiteke, baldin eta zuzenbideak arautzen dituen ondorioak sortzen baditu.

Bide horretatik goazela, hitz juridiko mota asko izango dira:

A. Hitz juridiko eskusiboak dira zuzenbideari soil-soilean dagozkionak. Hala-koek esangura juridikoa besterik ez dute. Edozein erabilera izan dezaketen arren, beti esangura juridiko zehatzarekin erabiliko dira hitz horiek, ez baitute zuzenbidearen esparrutik kanpo inolako esanahirik. Bistakoa denez, hitz juridiko eskusiboak oso gutxi dira; gainera, ez dira adierazgarrienak, ez dituztelako zuzenbidearen munduko erakunde oinarrizkoenak islatzen.

B. Bestalde, ez dira hitz juridiko eskusiboak eta, beraz, elkarrekikoak dira zuzenbidearen hizkera eta hizkera erkidea batzen dituztenak. Zuzenbideko hiztegietan termino gehienak horrelakoak dira. Hitz polisemikoak izan ohi dira, eta lexiko erkidea aberasten dute.

Pentsatzekoa da, bestalde, *Hiztegi Batua* ez dela oso aberatsa izango lehen multzoko hitzetan. Bai, ostera, bigarren multzoaren kontuetan.

---

14. Urrutia Badiola, A.: «"Administrazio-zuzenbidea" hiztegirako lantaldea: proposamena», in A. Urrutia Badiola, M. Azkarate eta X. Kintana Urriaga: «Hiztegitintzaz» (separata), *Eusker*a, 46. liburukia (2. aldia), 2001-1, 312. or.

15. Etxebarria, A., Gallastegi, C., Urrutia, A. eta Urrutia, E.: *Oinarrizko hiztegi juridikoa (Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan oinarritua)*, Minor bilduma, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2005 (inprentan).



Kopuruari dagokionez, gure kontuak honetara datoz: *Hiztegi Batuaren* lehen itzuliak 22.596 hitz ditu, 20.119 sarrera eta 2.477 azpisarrera. Gure zenbaketaren arabera, hitz juridiko esklusiboak eta ez-esklusiboak, guztira, 1.987 hitz izango lirarteke. Onik onenean, ehuneko hamarra baino gutxiago. Zertara dator hau? Lehen esandakoaren arabera, bigarren itzulirako ezarri diren irizpideen arabera, eremu honetakoak izan daitezkeen ekarpenak mailakatzera eta galbahetik igarotzera.

Lehendabiziko begirada azkarrean, *Zuz.* eta *Admin.* laburduretara jo eta hara hor gure aurkikuntzaren fruitua: Lau hitz dira, horrelako marka daramatenak:

*Admin.* eta *Zuz.* laburdurekin:

**ganbera** 1 *Ipar.* 'logela'. 2 *Admin.:* *diputatuen ganbera; merkataritza ganbera; ganbera musika.*

**ogasun** 1 *Bizk.* 'ondasuna'. 2 *Admin.* 'finantzak'

**oinordetza** *Zuz.*

**zehatu**, zeha, zehatzen. 1 *du* ad. 'jipoitu'. 2 *Zuz.* 'zigortu'

Hitz zehatzetara jota, hitz esklusibo bakan batzuk aurkitu ditugu gure azterketan, nahiz eta markaturik egon ez:

**abokatu defentsaria**

**Euskal Autonomia Erkidegoa**

**departamendu** "Frantziako administrazio barrutia"

**Europar Batasuna**

**Foru Aldundi**

**Foru Diputazio**

**jaurlaritza** (Euskal Autonomia Erkidegoko gobernua izendatzeko)

**Nafarroako Foru Erkidego**

Bestelako hitzak, berriz, ugari dira *Hiztegi Batuaren* argitalpenean, horietan maitzen baita kasu honetan hizkera juridikoaren edukia; eta irizpide desberdinetan agertzen dira kokatuak, dela euskalki markarekin, dela gainerako markekin. Aurretan ere bana daitezke horrelakoak: ohargarri, zernahi gisaz, Euskal Herriko zuzenbidearenak oso ugariak ez izatea.

Hiztegiak eta hizkuntzak haztatzeko, hona hemen gaztelaniazko akademiaren hiztegiak<sup>16</sup>, bere 2001. urteko edizioan (DRAE01), puntu honetaz dioena:

Objeto de revisión temática, a partir de propuestas elaboradas por los académicos de la Española o por algunos especialistas ajenos a la Corporación, han sido, en grado mayor o menor, campos como los de las matemáticas, la física y la química (en particular los elementos químicos y las unidades del Sistema Internacional), la biología, la informática, la medicina, el derecho, la economía, el comercio, la filosofía, la literatura, la lingüística, el teatro, el léxico militar (especialmente los grados del Ejército y de la Armada), la religión y la liturgia, el montañismo, etc.

---

16. Real Academia Española: *Diccionario de la lengua española*, Espasa Calpe, SA, Madril, hogeita bigarren argitaraldia, 2001, XXIX. or.

Katalunian<sup>17</sup> ere, itxura bereko autuak:

En el DIEC hi ha 67.000 articles i 128.000 acepcions; en 43.000 articles trobem acepcions especialitzades, i aquestes acepcions sumen 77.000. O sigui, tot plegat, que el lèxic d'especialitat representa entre el 60% i el 65% del total d'articles i acepcions del diccionari.

Aquest repartiment, ens ha de semblar normal? A finals de 1998 les Oficines Lexico gràfiques van calcular la proporció en el DIEC entre les diverses àrees temàtiques. Es tractava d'un estudi intern, quantitatiu, que responia a la preocupació de la Comissió de Lexicografia que no hi hagués àrees temàtiques ni sobre- ni infrarepresentades...en conjunt. Palesa que els diccionaris catalans superen de molt l'espanyol i el francès en la incorporació de lèxic especializat.

Zergatik aipamen hauek? Besteak beste, lehen esandako hori zehazteko, hots, *Hiztegi Batua* delakora, lehen itzuli honetan, behinik behin, ez direla batu, legezkoa denez, hizkera arruntari dagozkion hitzak baino, eta hori ere, esan gabe doa, lehen mailan egin da.

Itaun-bide izan daiteke norbaitentzat ea zergatik ez den bestera jaso, ea zergatik hitz gehiago edo gutxiago sartu, ea zergatik kontraesan agerikoak egon... Horiek onargarri badira ere, horiekiko erantzuna eta erantzukizuna, zorrozte eta finkatze aldera, bigarren itzultitik etor daiteke. Izatez, maiztasun gutxiagoko hitzak barneratuko ditu oraingoan hiztegiak. Eginez, maiztasun gutxiagoko horrek ekarri beharko du, proportzioz, xede berezietarako hitzak, gure kasuan hitz juridikoak, sarriago agertzea, eta, horren ondorioz, maizago ere barneratzea.

#### 4. Aurrerantzean zer?

Hasian hasi, hona hemen askok eta askok geure buruari egiten diogun galdera ohargarria, zer nondik etorriko den asmatu nahian. Zer gerta ere, bada, nire ustez, koordinazio-beharra eta -premia. Horretarako puntu batzuk, behinik behin, ahoan bilorik gabe esateko direla ezin aldendu, buru-has gatozenontzat behintzat.

Hitza edota kontzeptua, beste behin ere, koordinazioa da, eta horren barruan, profesionaltasuna. Ildo horretatik, Euskaltzaindiak bete dezakeen zeregina zehaztera nentorke, nire ustez, argi baitago, berak dituen eginkizunen artean, hiztegitzaren delatua printzipalenetarikoak.

Mugak muga, eta lehenari eutsiz, *Hiztegi Batua* deiturikoaren barruan, Euskaltzaindiak bere ibilbide neketsuan jarraituko du. Halaxe egin dugu, eta halaxe ere egingo, non ez den beste biderik asmatzen horretarako.

Guk geuk, behintzat, ahaleginak egin eta egiten ditugu prozedura arintzeko eta zehazteko. Bazterrezina da, bestalde, zer hobetu ere badagoela.

Besterik da eguneroko eginkizun eta zama —ordainduta, hori bai— dutenen kezka, noizbait norbaitek zehaztutako hitz edo terminoa beste guztiek onar dezaten. Halakoa hizkuntzaren merkatuan ipini eta bagoaz aurrera.

---

17. Miralles, C.: «Lèxic comú i lèxic d'especialitat en el DIEC», in *Jornades per a la cooperació en l'estandarització lingüística*, Sèrie jornades científiques 9, secció filològica, Institut d'Estudis catalans, Bartzelona, 210. or.

Akademiarena, berriz, eite osterantzekoa da. Akademiak bildu eta galbahean neurtzen du ea dena delako horrek pisua, esangura, onarpena eta izatea hartu dituen hizkuntzaren barruan. Berba batez esateko, ea hizkuntzaren erregelak egoki beteta, hiztunen komunitatean ere sustraitu den hitz hori, onartzeko adina behintzat.

Horretarako behar du Akademiak unibertsitateko eta lanbideetako jendearen lana. Bateko, euskara maila jasoan garatzen ari den unean bertan, aritze horren abangoardian diren horien ahotsa entzun ahal izateko; beste modu batera esanda, hitzak eta adierak egoki uztartzen eta josten diren jakiteko. Eta, besteko, ea hitzen bilakaera historikoa, morfologikoa, semantikoa eta diskurtsiboa ondo egokitzen den hizkuntzaren garatze-prozesuan.

Kontua, beraz, bestetik dator, alegia, nola antolatu bide hori, egun unibertsitate zein lanbide desberdinetan euskaraz ari diren profesional euskaldunek euren ekarpenak egin ahal ditzaten prozesu horretan.

Maila instituzionalean ukaezina da Terminologia Batzordearen jokabidea eta garrantzia, arlo eta kezka askotako arduradunak biltzeko, foro edo bilgune baten peskizan, batik bat espezialitateko hizkuntzetan.

Hizkuntza orokorrari dagokionez, haatik, Euskaltzaindiak baditu erantzukizunak, maila horretan esan eta finkatu beharrekoa egoki zertzeko. Aukeran du *Hiztegi Batua* lanaren bigarren itzulia; eta modua, dudarik ez, eragile ari diren unibertsitate, elkarte, lanbide-elkargo, administrazio, idazle, itzultzaile, teknikari, komunikabide eta bestelakoekin orpoz orpo jardutea, horiek baitira, gaur egunean, euskararen aitzinamendua daramatenak.

Euskaltzaindiaren zuzendaritzan badago horretarako borondatea, eta, orobat, *Hiztegi Batua* bigarren itzuli horretan, koordinazio baten mendean, arloka eta espezialitateka ere modurik sistematikoenean jokatzeko, ez terminologia baten jorratze orohartzaile baten atzetik, ezpada hitzun ikasiarentzat gaurko bizimoduan ezinbesteko diren hitzetatik hainbaten zehaztapena emateko.

Lagungarri izango zaigu, era berean, Euskaltzaindiak aurki hasiko duen proiektua, *Hiztegi Batua* lehen itzuliaren edukia euskarazko definizioez hornitzeko. Hortxe dago euskararen akademiak emango duen lehen pausoa, hiztegi beregain baten jabe izateko.

Amaitu hurren nago. Koordinaziorako moduak aipatu ditut behin baino gehiagotan hitzaldi honetan. Moduak modu, Xabier Kintana euskaltzainkideak<sup>18</sup> berrikitan proposatu duen lorratza jarri nahi dut zuen aurrean:

---

18. Kintana Urriaga, X. : «Lexiko zientifikoaren arazoa euskara idatziaren historian zehar» in *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologazidora*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2005, 479. orrialdetik 506.erakoak. Gai bertuko artikulua ere: Mujika, A.: «*Hiztegi Batua* eta terminologia zientifiko-teknikoa: elkarguneak, estuguneak eta gurutzaguneak» in *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologazidora*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2005, 435. orrialdetik 449.erakoak; Olaizola, M.: «*Hiztegi Batua* eta hiztegi juridiko-administratiboa» in *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologazidora*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2005, 451. orrialdetik 467.erakoak.

Lan egiteko, ordea, harreman horiek ordenatuki eta frankotiratzailerik gabe antolatzeke formula egokiak bilatu beharko lirakeke, Akademiagana erabiltzaileen eguneroko premiak, erabakietan aurkituriko puntu ilun eta kontraesanak, oraindik askatu gabeko zalantzak, kezak eta proposamenak era jariotsuan hel daitezten.

Lan horretarako baina, arbitrarioki izendaturiko talde oro-jakile bat barik, segurenetik zientzia arlo horietako askotan espezialista ez dena, askoz zentzuzkoagoa dirudi ofiziokoek berek beren baitatik ordezkari aproposenak izendatu eta Euskaltzaindiari proposatzea, elkarlanean jarduteko. Horiexek jakingo baitute, zehazki, hitz bakoitzak nolako kontzeptu zehatza adierazi behar duen.

Kontua da espezialistena eta espezialitateko hori nola neurtu eta barruratu. Labur-zurrean esanda, orekaren nondik norakoak nola zehaztu. Horretan, zalantzarik ez izan, Euskaltzaindiak zuen lana beharko du, Akademiaren emaitzak balioets ditzazuen eta zuen arrangurak barrura ditzagun, ahal delarik, modurik sistematiko eta agerikoenetan. Horrelaxe lortuko dugu, menturaz, egun munduan zehar zabal-tzen ari dena euskaraz ere egitea, hots, Cabre aditu katalanaren esanari helduz, terminologia *in vitro* batetik terminologia *in vivo* batera igarotzea, eten eta jausirik gabe.

Betor, beraz, nire aldetik, auzolanerako deia, aintzat hartuta, zuek, oporretan ere, ikasteko grina eta garramura erakusten dituzuela. Hori, Iruñean eta uztaila bitarteko sargorian, ez da gutxi. Lan on eta oparoa egin, eta, badakizue, euskararen bide zabaletan, bidaide dituzuela Euskaltzaindia eta Euskaltzaindikoak.



